



## **JARRAIBIDEAK, Hezkuntza sailburuordeak Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei emandakoak, eskolan berriki sartutako ikasle etorkinei laguntza ematea helburu duten Hizkuntza Indartzeko Proiektuei buruz.**

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, hezkuntza kultura-aniztasuneko ingurune batera egokitzeko premiaz jabetuta, kultura arteko hezkuntza eredua garatu nahi du, helburu hau lortzeko: Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeen aniztasuna errespetatu eta berdintasuna lortzea. Ikastetxeetan dagoen kultura-aniztasuna aitortzea funtsezkoa da kultura arteko benetako gizarteak izatea lortzeko.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ikasle etorkinei ikastetxeetan emango zaizkien heziketarako laguntzak arautu nahi ditu, ikasle horiek gure hezkuntza sisteman sar daitezen errazteko.

2003/2004 ikasturtearen hasieran, ikastetxe publikoetan hizkuntza indartzeko programa bat jarri zen abian —proba moduan— EAEko hezkuntza sisteman sartu berriak ziren ikasle etorkinentzat. Irakasleak zerbitzu betekizuneko plazen deialdi baten bidez atxiki ziren programa horretara. Deialdi hori 2003ko ekainaren 17an egin zen, eta haren ebazpena 2003ko uztailaren 23an argitaratu zen.

Nola 2003/2004 ikasturtean horretara bideratutako baliabideen ezarpena proba moduan egin zen, gero, 2004/2005 ikasturterako, jarraibide batzuk prestatu ziren, horien bitartez baliabideen esleipena egonkorragoa eta ikastetxeen inplikazioa handiagoa izatea lortzeko asmoz. 2004ko maiatzaren 24an, 2004-2005 ikasturteari buruzko jarraibideak bidali zizkien Hezkuntza sailburuordeak ikastetxeei. Aipatu jarraibideak aintzat hartuta, moldaketa bat egin da 2007-2008 ikasturterako.

Jarraibideon helburua hau da: hezkuntza sistemara berriki sartu diren ikasle etorkinentzat —komunikazio arloan gabezia handiak izan, eta 2007/2008 ikasturtean zehar hizkuntza indartzeko planak, batik bat euskaraz, behar dituztenak— laguntza programak dituzten ikastetxe publikoen proiektuak arautzea.

### **1. Jarraibide hauen helburua.**

Jarraibide hauen helburua da 2007/2008 ikasturtean Hizkuntza Indartzeko Proiektu bat egin nahi duten Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoei orientazioa ematea. Proiektu horiek Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan berriki (2006/01/01etik aurrera) hasi diren ikasle etorkinekin gauzatuko dira; betiere, euskaraz ez dakitelako, komunikazio arazo handiak badituzte eta 2007/2008 ikasturtean hizkuntza indartzeko plan baten beharra badute.



## **2. Proiektu horien helburuak.**

Hauek dira deialdi honen xede diren Hizkuntza Indartzeko Proiektuetarako proposatzen diren helburuak:

1. Euskara ez dakiten ikasle etorkinei berariazko laguntza emateko aukera izatea, hizkuntza eta komunikazio trebetasunak eskuratzeko laguntza emanez, eta irakaskuntza/ikaskuntza prozesua doitze kurrikular egokien bidez garatuz.
2. Ikasle horiek euskal hezkuntza sisteman sartzen laguntzea, eskolan eta gizartean lehenbailehen eta ahalik eta baldintza onenetan integra daitezen lortzeko.

## **3. Jarduera printzipioak**

Finkatutako helburuak lortzeko, Hizkuntza Indartzeko Proiektuak zehazterakoan honako jarduera-printzipio hauek izango dira oinarria:

- a) Jarduera edo jarduerak ikastetxeek beharren arabera zehazten dituzten proiektuetan egituratzen dira. Ikasleek egiten dituzten zikloetako irakasleak egongo dira proiektuan, eta egoera horrek, agian, aldaketak eragin ditzake horien antolaketan eta funtzionamenduan.
- b) Ikasleen kultura, esperientziak, ezaugarriak, interesak eta hizkuntza beharrak aintzat hartuko dituen hezkuntza eskaintza ematea, ikasleoi euskal hezkuntza sisteman sartzen laguntzeko. Horretarako, beste neurri batzuen artean, curriculum aberastea bultzatuko da, murriztu edo sinplifikatu beharrean.

## **4. Proiektuen hartzaileak.**

Hizkuntza Indartzeko Proiektuen hartzaileak Lehen eta Bigarren Hezkuntzan berriki (euskal hezkuntza sisteman 2006/01/01etik aurrera sartutako ikasleak) sartu diren ikasle etorkinak dira; euskara jakin ez eta ikastetxe publikoetan eskolatzen direnak, hain zuzen ere. Orobat, ikastetxe-aldaketa dela eta, beste ereduren batetik B edo D ereductara sartzen diren ikasleak ere izan daitezke hartzaile. Salbuespenez, eta egoerak hala eskatzen duenean, proiektuak gaztelaniaz ez dakiten ikasleentzat ere izan ahalko dira, ikastetxeak horretarako baliabide propiorik ez badu.

## **5. Proiektuen ezaugarriak.**

Hizkuntza Indartzeko Proiektutzat joko dira gure ikastetxeek egun duten kultura-aniztasunari erantzun egokia emango diotenak, gure euskal kulturaren balioak lehentasunez garatuz, eta, aldi berean, eskola kultura arteko dimentsiora irekiz.



Hezkuntza Berriztatze programen lehentasunezko ildoetan lehenak jasotzen duenez, “Erantzun egokia eman ahal izateko eta ikasle guztiak barne hartu eta parte hartu ahal izateko, alderdi komunak eta desberdintasun kulturalak eta pertsonalak ere hartu beharko dira kontuan. Hortaz, ikasleetako bakoitzaren eta bertan dauden taldeen ezaugarri, interes eta premiei erantzun beharko die eskolak, eta ikasle orok gaitasun guztiak garatzeko duen eskubidea errespetatu eta indartu beharko da.”

## 6. Baliabideak

Onartutako Hizkuntza Indartzeko Proiektuek aparteko giza baliabideak izango dituzte: erabateko arduraldiarekin edo arduraldi partzialarekin ikastetxe bati esleitutakoak, edo ikastetxe batzuei esleitutakoak eta partekatuak, barruti edo zona batekoak. Zenbait barrutitako ezaugarriak aintzat hartuz, aukera izango da barruti baterako baliabideak esleitzeko, barruti horretako ikastetxe batean baino gehiagotan lan egin dezaten, ikastetxe horien eskariei erantzuteko. Halakoetan, Berritzeguneko zuzendariak eta barrutiko Ikuskaritza Nagusiak ikastetxeen eskaerak balioetsiko dituzte, eta txosten-proposamen bat igorriko diote Pedagogia Berrikuntzarako lurraldeburuari, baliabidearen esku-hartzearen ezaugarriak zehazteko.

## 7. Baldintzak

- a) Proiektuak 4. atalean adierazitako baldintzak betetzen dituzten ikasleekin landuko dira, batez ere.
- b) Ikastetxeko zuzendaritzak bere gain hartu beharko du proiektuaren erantzukizuna.
- c) Hizkuntza indartzeko esku-hartzea ikastetxean destinoa duten irakasleek, edo, ikastetxearen zuzendaritzak hala proposatuta, 2004/2005 ikasturtean Hizkuntza Indartzeko Programa landu duen irakasleak egingo dute. Irakasle horiek 2. hizkuntza-eskakizuna eduki beharko dute, baita prestakuntza nahikoa edo aurreko lanbide-esperientzia ere, hizkuntzen irakaskuntzari eta aniztasunaren trataerari dagokienez.
- d) Ikastetxeko Zuzendaritzak konpromisoa hartuko du proposaturiko irakaslea prestakuntza-ikastaroetara joan dadin, baldin eta ikastaro horiek proiektu honekin zerikusia badute eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak antolatu badituzte. Hala ere, hizkuntza indartzeko irakasleak ezingo dira aurkeztu liberazioa eskatzen duten ikastaroetara.
- e) Hizkuntza indartzeko neurriak ohiko gelatik kanpo gauzatzea erabakitzen bada, ikasleak ez dira eskola-orduen 1/3 baino gehiago egongo erreferentziatzko taldetik kanpo.
- f) Ordezkaritza Organo Gorenak onartu beharko du proiektua, klaustroa jakinaren gainean dagoela.



## 8. Proiektu eskaerak aurkeztea

Ikastetxetako zuzendaritzek Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritari bidaliko dizkiote baimen eskaerak. Eskaera horiek I. ERANSKINEKO ereduaren arabera izango dira, eta ikastetxeari dagokion Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan aurkeztuko dira.

Eskaerekin batera, ERANSKINETAN adierazitako dokumentazioa bidaliko da, **hiru aletan**.

Eskaerak aurkezteko epea **2007ko maiatzaren 31n amaituko da**.

Onartuak izaten badira, proiektu berri horiek 2006-2007 ikasturtean izango dira indarrean.

## 9. Proiektuak onartzeko prozesua.

Pedagogia Berrikuntzarako Lurraldeburuak honako txosten hauek eskatuko ditu, eskaerei eransteko:

- a) Dagokion Berritzegunearen txostena. Txosten horretan proiektua III. ERANSKINAK ezarritakoaren arabera balioetsiko da, proiektuaren beharrak deialdiak ezarritakoarekin bat datozen aintzat hartuz.
- b) Hezkuntza Ikuskaritzaren txostena, aurkeztutako proiektua deialdi honetan ezartzen diren baldintzetara eta ikastetxearen ezaugarrietara egokitzen den azaltzeko.

Pedagogia Berrikuntzarako Lurraldeburuek eta Ikastetxeen Lurraldeburuek txosten horiek aintzat hartu eta II. ERANSKINEKO baremoak aplikatuko dituzte; hori egin ondoren, proiektuak jasotako puntuaketaren arabera zerrendatuko dituzte, eta horrekin batera, proiektu bakoitzean eskatzen diren baliabideak adieraziko dituzte.

Batzorde batek, Lurraldeburuek egindako zerrendak kontuan hartuz, hizkuntza indartzeko programaren baliabideei buruzko behin betiko proposamena egingo du, eta Hezkuntzako sailburuordeari igorriko dio. Batzorde horren burua Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria edo horrek bere ordez izendatzen duen pertsona izango da, eta ondokoak, berriz, kideak: ikuskari nagusiak izendatutako Hezkuntzako ikuskari bat, Pedagogia Berrikuntzarako Lurraldeburuak, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako teknikari bat eta Ikastetxeen Zuzendaritzako teknikari bat.

Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak 2007eko ekainaren 17a baino lehen jakinaraziko die ikastetxeei aurkeztutako proiektuak onartuak izan diren ala ez; eta, hala badagokio, proiektuei esleitu zaizkien baliabideak.



## 10. Banakako Esku-hartze Plana

Ikasle bakoitzak Banakako Esku-hartze Plan bat izango du. Plan horiek Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura izango dira, eta ikasle bakoitzaren egoerara egokituko dira. Horietan, gutxienez, honako hauek jaso beharko dira: ikasleen hizkuntza premien azalpena; helburuak, lan-metodologia eta ebaluazio-irizpideak; ohiko taldearen barruan egingo den denboraren antolaketa; hala balego, berariazko taldea; tutoretzapean egindako jarduera indibidualak, eta prozesuaren ebaluazioa eta amaierako ebaluazioa, aurretik diseinatutako planaren arabera.

## 11. Proiektuen jarraipena eta ebaluazioa.

Hizkuntza Indartzeko Proiektuak, onartu ondoren, ikastetxearen urteko planean sartuko dira.

Hizkuntza Indartzeko Proiektuak egiten dituzten ikastetxeek proiektu horien balioespena eta horiek hobetzeko proposamenak —VII. ERANSKINEKO gidoiari jarraituz— egingo dituzte urteko memorian.

Ikuskaritza Teknikoak, dagokion barrutian, jarraibide hauetan jasotako proiektuak gauzatzen dituzten ikastetxeen ebaluazio txostenak egingo ditu, eta Hezkuntza Sailburuordetzara bidaliko ditu.

## 12. Proiektuak aurkezteko salbuespena

2006-2007 ikasturteko deialdian parte hartu eta beren proiektuak onartuak izan zituzten ikastetxeak proiektu berri bat egitetik salbuetsita egongo dira; baldin eta balorazio Memoria eta hobekuntza proposamenak aurkezten badituzte. Memoriak ere proiektu berrien balorazio irizpide berberekin baloratuko dira.

Gasteizen, 2007ko maiatzaren 9an.

**Pedro M<sup>a</sup> Ochoa Bernales**  
**Hezkuntza Sailburuordea**



## I. ERANSKINA

### PROIEKTU ESKAERA

Ikastetxea..... Kodea

--	--	--	--	--	--

Herria ..... Lurraldea .....

Goian aipatutako ikastetxeko zuzendariak agiri honi erantsitako Hizkuntza Indartzeko Proiektua onartzea eskatzen du(\*) 2007-2008 ikasturterako. Proiektuak, aparteko baliabideei dagokionez, ondokoak beharko lituzke:

- Erabateko arduraldia izango duen irakasle bat.
- Arduraldi partziala izango duen irakasle bat
- Partekatutako irakasle bat
- Partekatutako irakasle bat, barruti-mailakoa

Proiektuaren irakasle arduraduna:

IZEN-ABIZENAK	NAN	EGOERA ADMINIST.	ESPEZIALIT.	HIZKUNTZA- ESKAKIZUNA

(\*) Eskaera ikastetxe batek baino gehiagok batera eginez gero, eskaera bakarra aurkeztuko da, ikastetxe bakoitzaren sinadura eta zigilua jasoz.

.....-n, 2007ko .....ren .....-(e)an

**Sinadura eta zigilua**

**SARRERA**

Eguna

Zigilua

**HEZKUNTZAKO .....KO LURRALDE ORDEZKARI JAUNA/ANDREA**



## II. ERANSKINA

### PROIEKTUAK BALIOESTEKO BAREMOA

1. Ikastetxeak dituen ikasle etorkinen ehunekoa (gehienez, 3 puntu).

2 < > 5 %	0,25 puntos
5 < > 10%	0,5 punto
10 < > 15 %	1 punto
15 < > 20%	1,5 puntos
20 < > 25%	2 puntos
25 < > 30%	2,5 puntos
> 30%	3 puntos

2. Ikastetxean sartu berriak izan (2006/01/01etik aurrera) eta deialdi honen barruan sartzen diren Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasle etorkinen kopurua, Haur Hezkuntzako ikasleak alde batera utzita (gehienez, 7 puntu).

Educación Primaria	Educación Secundaria	Puntos
3-6	2-4	1 punto
7-11	5-7	2 puntos
12-16	8-10	3 puntos
17-20	11-13	4 puntos
21-25	14-17	5 puntos
26-30	17-20	6 puntos
> 30	>20	7 puntos

3. Aurkeztutako Hizkuntza Indartzeko Proiektuaren edo Memoriaren balioespena (gehienez, 5 puntu).

Oharra: Bi ikastetxek edo gehiagok batera egindako eskaeretan, ikasle kopuruak ez badu erabateko arduraldia izango duen baliabidea justifikatzen, horien datuak batera barematuko dira, aurkeztutako datuen batez bestekoa eta partekatutako proiektua aintzat hartuz.



### III. ERANSKINA

#### PROIEKTUAREN DEFINIZIOA

**1. Proiektuaren azalpena**

- Proiektuaren beharraren arrazoiak eta ikastetxeak horri aurre egiteko duen ahalmena.

**2. Eskatzen diren aparteko baliabideak**

- Indartzea egiteko beharrezkoak diren aparteko giza baliabideak.
- Ikastetxeek proposatutako titularrak (ikastetxeko LPZko irakaslea edo 2005-2006 ikasturtean Hizkuntza Indartzeko Proiektua landu zuen irakaslea)

**3. Proiektuan erabiliko diren baliabideak.**

- Ikastetxeko irakasleen eta eskola-elkarte osoaren inplikazioa.
- Proiektuaren berariazko neurrien arduradun izango diren irakasleak.
- Proposaturiko irakaslearen egokitasuna.
- Proiekturako erabilgarri egongo diren ikastetxeko baliabide didaktiko eta materialak.

**4. Esku-hartze proposamena**

Hizkuntza Indartzeko Programaren proposamena, besteak beste, honako alderdi hauetan zehaztua:

- Alderdi metodologiko nagusiak.
- Antolaketa eta funtzionamendu neurriak.
- Ikastetxeko tutoreen, orientatzaileen eta aholkularien arteko koordinazio plana.
- Ikastetxearen inplikazioa prozesu osoan.

**5. Ikastetxearen hizkuntza-trataera**

**6. Proiektuaren jarraipena, koordinazioa eta barne ebaluazioa.**

- Uneak, irizpideak eta tresnak.
- Proiektuaren ebaluazio irizpideak.

**7. Proiektuaren beste alderdi batzuk**

Oharra.- Atalak lagungarri moduan adierazi dira, eta norberak, dituen beharren arabera, nahi beste luza ditzake.



#### IV. ERANSKINA

**Ikastetxea** .....

**Herria** ..... **Lurraldea** .....

#### IKASTETXEAN ESKOLATUTA DAUDEN IKASLE ETORKINAK

IZEN-ABIZENAK	Ikas-maila.	Hizkuntza-eredua	Jaiotza-eguna	Sarrera eguna	Jatorrizko herrialdea
1.					
2.					
3.					
4.					
5.					
6.					
7.					
8.					
9.					
10.					
11.					
12.					
13.					
14.					
15.					
16.					
17.					
18.					
19.					
20.					
21.					
22.					
23.					

.....(e)n, 2007ko .....-ren..... (e)an

Ikastetxeko zuzendaria eta ikastetxeko zigilua

Izenpetzailea: .....



## V. ERANSKINA

### ORDEZKARITZA ORGANO GORENAREN AKTA

..... ikastetxearen Ordezkaritza Organo Gorena, behean adierazitako egunean bilduta, haren jarduerak arautzen dituen legezko baldintzak betez, eta Hezkuntza sailburuordeak 2007eko maiatzaren 9an emandako Jarraibideetako deialdiaren baldintzekin bat etorritik, ikastetxeko zuzendaritzak aurkeztutako Hizkuntza Indartzeko Proiektua onartu du, eta aurkeztutako proiektuan jasotzen diren jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko konpromisoa hartzen du, baita, onartua izanez gero, hura ikastetxearen urteko planean jasotzekoa ere.

.....(e)n, 2007ko .....-ren.....(e)an

ORDEZKARITZA ORGANO GORENEKO PRESIDENTEA



## VI. ERANSKINA

Ikastetxea.....

Herria ..... Lurraldea .....

EAEko HEZKUNTZA SISTEMAN BERRIKI SARTUTAKO IKASLE  
ETORKINAK (2006/01/01ETIK AURRERA)

IZEN-ABIZENAK	Jaiotza-eguna	Sarrera data*	Jatorrizko herrialdea	Ikasmaila	Hizkuntza-eredua
1.					
2.					
3.					
4.					
5.					
6.					
7.					
8.					
9.					
10.					
11.					
12.					
13.					
14.					
15.					
16.					
17.					
18.					
19.					
20.					

\*EAEko hezkuntza sisteman noiz sartu diren (2006/01/01 baino geroago)

.....(e)n, 2007ko .....-ren ..... (e)an

Ikastetxeko zuzendaria eta ikastetxearen zigilua

Izenpetzailea: .....



## VII. ERANSKINA

### URTEKO MEMORIA ETA AMAIERAKO MEMORIA EGITEKO GIDOIA

**IKASTETXE(AK):**.....

**Herri(ak)** ..... **Lurraldea** .....

1.-Proiektuaren helburuak zenbateraino bete diren

2.- Egindako jardueren laburpen-taula

3.- Konklusioak: proiektuaren lorpenak eta hobekuntza proposamenak.